



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko abuztuaren 26a

72. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Xabierko Frantzisko Jatsukoa auditorioaren obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, 2004tik 2007ra larrialdi zerbitzuetan eginiko egintza medikoen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Leitzako Erasote eta Erreka auzoetan ezin den lurreko telebista digitala ikusi eta Nafarroako Gobernuak zer asmo duen arazo hori konpontzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak 2007an dirulaguntza edo inolako laguntzarik eman dion Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial fundazioari. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik ez diren argitaratu Cetena fundazioko kontuak 2008ko aurrekontuetako fundazioei buruzko kapituluan. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako olioaren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako patxaranaren adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako artisautzako elikagaien kalitate ziurtagirian arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Tuterako orburuaren adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroako arkumearen adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako aratxearen adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako ardoaren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Erronkariko gaztaren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

- Galdera, Lodosako pikillo piperraren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroako produkzio integratuaren kalitate ziurtagirian arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Nafarroako produkzio ekologikoaren kalitate ziurtagirian arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuaren fundazio publiko ez diren fundazioetatik zeinetako patronatu edo zuzendaritza organoetan duten partaidetza edo ordezkaritza Nafarroako Gobernuak izendatutako pertsonak. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer proiektu dituen uholdeen prebentziorako larrialdietarako plan bereziaren plangintzaren barruan. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, kudeaketa publikoko nahiz pribatuko zahar-etxeei eta bertako langileei aplikatzen zaizkien hitzarmenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, udalerrietan adineko pertsonak dituzten beharriaren gaineko azterlanak egiteko udalei ematen zaizkien laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, A-12 autobidean animaliak sartzen direla-eta eragindako istripuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuko teknikariek eginiko “Gela osasungarriak, nerabe trebeak” izeneko materialaren argitalpen eta zabalkundeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, 2007-2008 eta 2006-2007 ikasturteetako eskaintza eta eskaerari buruzkoa, adin-tarteen eta hizkuntza ereduaren arabera xehakaturata. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, “Pro Libertate” izeneko bilduman argitaratutako liburuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Spanair enpresak Iruña-Madril hegaldiak eteteko arrazoi objektiboak eta erabaki horren aurrean hartuko diren neurriak buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, jakiteko zein egoeratan dauden Burlata, Corella, Lizarra eta Iruñeko udalekin Nafarroako Gobernua egiten ari den negoziazioak, Nafarroako Gobernuaren menpeko Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako eskolen kudeaketa tokian tokiko udalari lagatzekoak. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Xabierko Frantzisko Jatsukoa auditorioaren obrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Xabierko Frantzisko Jatsukoa auditorioaren obrei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 18ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Xabierren dagoen Frantzisko Jatsukoa auditorioari buruz. Hona Vianako Prin-

tzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1. Lanen lehen ziurtapena 2004ko irailaren 1ean egin zen, eta hamahirugarren eta azken ziurtapena 2005eko abenduaren 1ean egin zen.

2. Gastua 2.831.786,74 eurokoa izan zen, gutzira. Gastu hori finantzatu zen Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzaren bidez. Dirulaguntza hori 1.387.500 eurokoa izan zen, aurrekontuaren %49. Gainerakoa Jesusen Lagundiak finantzatu zuen.

3. Higiezinaren titularrak Jesusen Lagundia da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 30ean

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, 2004tik 2007ra larrialdi zerbitzuetan eginiko egintza medikoen kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Chivite Navascués andreak galdera egin du 2004tik 2007ra larrialdi zerbitzuetan eginiko egintza medikoen kopuruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 18ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak galdera egin du 2004tik 2007ra bitarte larrialdi zerbitzuetan aurrera eramandako egintza medikoen kopuruari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 29an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

	2004	2005	2006	2007
Nafarroako Ospitalea	57.115	56.576	57.684	57.341
Bideko Ama Birjina Ospitalea (Orokorra)	71.332	64.448	64.944	64.820
Bideko Ama Birjina Ospitalea (Ama-haurren larrialdiak)	53.952	53.092	56.695	57.721
Reina Sofía Ospitalea	47.012	48.767	50.559	53.613
García Orcoyen Ospitalea	23.394	23.398	24.547	26.099
Guztira... ..	252.805	246.281	254.429	259.594

Galdera, jakiteko zergatik Leitzako Erasote eta Erreka auzoetan ezin den lurreko telebista digitala ikusi eta Nafarroako Gobernuak zer asmo duen arazo hori konpontzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zergatik Leitzako Erasote eta Erreka auzoetan ezin den lurreko telebista digitala ikusi eta Nafarroako Gobernuak zer asmo duen arazo hori konpontzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zergatik ezin den ikusi lurreko telebista digitala Leitzako zenbait auzotan eta jakiteko zer aurreikuspen dagoen arazo hori konpontzeko. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Foru Komunitateko herritarrei lurreko telebista digitala (LTD) hedatzea da –zerbitzu unibertsal eta kalitatezkoarekin– Nafarroako Gobernua azken urteotan arrakastaz gauzatzen ari den ekimen bat.

Hain zuzen ere, 2007. urtean zehar, LTDren estaldura handitu zen Nafarroan (estatuko eta autonomia erkidegoetako kateak) eta urrirako,

herritarren %94,91k jasotzen zuen, abian jarritako 17 telekomunikazio-zentrori esker.

Ehuneko horrek aurrerapen bat adierazten du Lurreko Telebista Digitalari buruzko Plan Tekniko Nazionalean aurreikusi ziren estaldura faseei dagokienez. Hona horien egutegia, estaldura pixkanaka hedatzen joateko:

- herritarren %88, 2008ko uztailaren 31 baino lehen.
- herritarren %90, 2008ko abenduaren 31 baino lehen.
- herritarren %93, 2009ko uztailaren 31 baino lehen.
- herritarren %96, sozietate emakida-hartzaile pribatuentzat, eta herritarren %98, estatu nahiz autonomia mailako erakunde publikoentzat, 2010eko apirilaren 3a baino lehen.

Egungo estaldura askoz ere handiagoa da Plan Tekniko Nazionalean sozietate emakida-hartzaileentzat ezarritakoa baino, eta hori posible izan da Nafarroako Gobernuak, Abertis Telecom-ek eta Opatel sozietate publikoak sinatutako hitzarmenari esker.

Galderaren edukian planteatzen den egoera ez da errealitatearen araberakoa; izan ere, Erasote eta Erreka auzoetan –Leitzan kokatuak– lurreko telebista digitala ikusi daiteke. Izan ere, zerbitzu hori Leitzako telekomunikazio-zentrotik eskaintzen da. Betiere, Nafarroako Gobernuak aitortzen du zerbitzua uneotan partziala dela eta bi auzo horie-

tako biztanle guztiek ezin dutela lurreko telebista digitala ikusi. Hona azalpen teknikoa: Leitzako telekomunikazio-zentroak eskaintzen dituen uhin erradioelektrikoak ezin dira erabiltzaile guztiengaino heldu, lurraldearen ezaugarri orografikoek itzalguneak sortzen dituztelako eta baserriak sakanatuak daudelako.

Nafarroako Gobernuak badu egoera horren berri, eta lanean dihardu konponbide bat bilatzeko, antzeko arazoak dituzten Foru Komunitateko beste gunek batzuetan egiten duen moduan.

2. 2008. eta 2009. urteetarako, Nafarroako Gobernuaren asmoa da estaldura osatzea, herrita-

ren %99,45era heldu arte (berriro ere Plan Tekniko Nazionalean ezarritakoa baino gehiago), eta aurreikusitako kostua 5.928.865 eurokoa da.

Gainerako estaldura hedatzeko, aurreikusi da frekuentzia bakarreko igorgailuak ezartzea. Konponbide tekniko garestia da, bereziki kontuan izanik igorgailu horien bidez herritar gutxiri eskaintzen zaiela zerbitzua. Hori horrela, Nafarroako Gobernua konponbide onena aztertzen ari da, bai ikuspuntu teknologikotik bai ekonomikotik.

Iruñean, 2008ko apirilaren 30ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak 2007an dirulaguntza edo inolako laguntzarik eman dion Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial fundazioari.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak 2007an dirulaguntza edo inolako laguntzarik eman dion Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial fundazioari.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz

jaunak galdera egin du jakiteko dirulaguntzarik edo inolako laguntzarik dagoen Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial izeneko fundazioarentzat. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

a) Aztertu ostean Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak 2007ko ekitaldian zuen aurrekontuaren gastuen kontabilizazioa, ez da ageri Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial izeneko fundazioak inolako laguntzarik jaso duenik departamentutik.

b) Ez, departamentuaren eskumenen esparruan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 30ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, jakiteko zergatik ez diren argitaratu Cetena fundazioko kontuak 2008ko aurrekontuetako fundazioei buruzko kapituluan.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du jakiteko zergatik ez diren argitaratu Cetena fundazioko kontuak 2008ko aurrekontuetako fundazioei buruzko kapituluan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du CETENA Fundazioaren kontuei buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du jakiteko zergatik ez diren argitaratu CETENA fundazioko kontuak 2008ko aurrekontuetako fundazioei buruzko kapituluan. Hona erantzuna:

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeak ondokoa ezartzen du bere 125. artikuluan: "Fundazio publikoak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta haren erakunde autonomoak beren esku dituzten helburuak egiteko sortzen dituztenak dira, Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumarekin bat".

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak bere 2. artikuluan ezartzen duenez, foru lege horren ondorioetarako, Nafarroako sektore publikoa osatzen dute Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta haren erakunde publikoetako fundazio publikoak. Ondorio horietarako, halako bihur daitezke, 15/2004 Foru Legeko 125. artikuluan zehaztuz gain, aurreko arauan ezarritako baldintza ez betetzea-

gatik sorreran pribatuak izanik, sortu eta gero partaidetza-baldintza horiek bereganatzen dituztenak, eta horrekin batera gobernu organoetan administrazioaren ordezkariak gehiengo osatzearen baldintza betetzen dutenak.

13/2007 Foru Legeak bere 27. artikuluan ezartzen du, besteak beste, ondokoek osatuko dituzte la Nafarroako Aurrekontu Orokorak: Foru Komunitateko fundazio publikoen eragiketa arruntan eta kapital eta finantza eragiketen aurrekontuek.

Cetena fundazioa baimendutako eskrituren bidez eratu zen, José Miguel Peñas Martín notarioaren aurrean, 2000ko ekainaren 30ean (2.397. zenbakia), eta bere helburua honako hau zen: Nafarroako enpresentzat ikerketa zientifikoko, garapen teknologikoko eta berrikuntzaren sustapeneko jarduerak bultzatu eta betetzea.

Cetena fundazioa eratzearen xedea izan zen Berrikuntza eta Teknologia Zentrotzat hartzea, otsailaren 20ko 2609/1996 Errege Dekretuaren esparruan. Onespen hori Politika Zientifiko eta Teknologikoaren estatu idazkariak eman zion, 2003ko maiatzaren 5eko ebazpenaren bidez.

2005eko otsailaren 18an, José Miguel Peñas Martín notarioaren aurrean sinatutako eskrituraren bidez –horren bidez estatutuak aldatzen ziren eta karguak izendatzen ziren–, izena aldatu zitzaion eta Cetena jarri zitzaion.

Aurretik azaldutakoa ikusita, adierazi behar da Cetena fundazioak ez dituela betetzen beharrezkoak diren baldintzak Foru Komunitateko fundazio publikotzat har dadin; izan ere, ez zuten Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak edo haren erakunde publikoek sortu, ez ditu betetzen gerora Nafarroako Foru komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2007 Foru Legearen 125. artikuluan ezarritako baldintzak, eta administrazioak haren gobernu organoetan duen ordezkariak ez du gehiengo osatzen.

Iruñean, 2008ko apirilaren 30ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Nafarroako olioaren jatorrizko deitura babestuan arau-haustereen bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroako olioaren jatorrizko deitura babestuan arau-haustereen bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Gaur egun ez dago "Nafarroako Olio" Jatorrizko Deitura Babesturik.

Landa Garapeneko zuzendari nagusiak otsailaren 19an emandako 527/2008 Ebazpenaren bidez, aldeko erabakia hartu zen Kontseiluak martxoaren 20an emandako 510/2006/EE Erregelamenduan aurreikusten den Europako jatorrizko deitura babestuen eta adierazpen geografiko babestuen erregistroan "Nafarroako Olio" Jatorrizko Deitura Babestua inskribatzeko eskaerari buruz, eta babes nazional iragankorra eskatu zen.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Nafarroako patxaranaren adierazpen geografiko babestuan arau-haustereen bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroako patxaranaren adierazpen geografiko babestuan arau-haustereen bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Azken bost urteotan ez da inolako arau-haustere izan "Nafarroako Patxarana" Adierazpen Geografikoan.

Alabaina, 5 zehapen espediente izapidetu zaizkie inskribatutako enpresei, beste produktu batzuekin eta beste arrazoi batzuk direla medio egindako arau-hausteengatik:

Urtea	Arau-haustearen arrazoia	Zehapena
2006	1945/1983 Errege Dekretuaren 4.3.2. artikulua: iruzurrarengatiko 2 arau-hauste (osaeraren kalitatea)	1.202,04 euro
2006	1945/1983 Errege Dekretuaren 4.3.2. artikulua: iruzurrarengatiko arau-haustea (osaeraren kalitatea)	601,02 euro
2005	1945/1983 Errege Dekretuaren 4.3.2. artikulua: iruzurrarengatiko arau-haustea (osaeraren kalitatea)	601,02 euro
2005	1945/1983 Errege Dekretuaren 4.3.2. artikulua: iruzurrarengatiko arau-haustea (osaeraren kalitatea)	601,02 euro
2005	1945/1983 Errege Dekretuaren 4.2.5. artikulua: klandestinitateagatiko arau-haustea (etiketak ez datoz bat ezarritako forma eta baldintzekin)	301,51 euro

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturria

Galdera, Nafarroako artisautzako elikagaien kalitate ziurtagirian arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroako artisautzako elikagaien kalitate ziurtagirian arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Azken bost urteotan ez da inolako arau-hausterik izan Nafarroako nekazaritza-elikadurako artisau-enpresei egotz dakiekeenik.

Alabaina, zenbait arau-hauste egin dituzte enpresa batzuek; izan ere, nekazaritza-elikadurako artisau-enpresaren kalifikazioa izan gabe, maiatzaren 23ko 103/1994 Foru Dekretuaz baliatu dira –dekretu horrek arautzen du Nafarroako nekazaritza-elikadurako artisautza–.

Halaber, jakiak etiketatzeari, aurkezteari eta iragartzeari buruzko uztailaren 31ko 1334/1999 Errege Dekretuaren 4. artikuluan xedatzen denez, etiketek eta etiketak egiteko modalitateak ez diote erosleari nahasterik sortu behar, batez ere jakia-zen ezaugarriei dagokienez eta, zehazki, jakia-zen izaera, identitate, ezaugarri, osaera, kantitate, iraupen, jatorri eta fabrikatzeko edo lortzeko moduari dagokienez.

Hori horrela, 4 zehapen espediente izapidetu dira guztira:

Urtea	Arau-haustearen arrazoia	Zehapena
2003	1945/1983 Errege Dekretuaren 4.3.3. artikulua: iruzurrarengatiko 2 arau-hauste (etiketetan izen edo adierazle faltsuak erabiltzea, jakiari ez dagozkionak edo erabiltzailea nahas dezaketanak)	1.202,50 euro
2004	1.945/1.983 Errege Dekretuaren 4.2.5. artikulua: klandestinitateagatiko 2 arau-hauste (etiketak ez datoz bat ezarritako forma eta baldintzekin)	1.051,02 euro
2004	1.945/1.983 Errege Dekretuaren 4.2.5. artikulua: klandestinitateagatiko 2 arau-hauste (etiketak ez datoz bat ezarritako forma eta baldintzekin)	1.051,02 euro
2007	1945/1983 Errege Dekretuaren 4.3.3. artikulua: iruzurrarengatiko arau-haustea (etiketetan izen edo adierazle faltsuak erabiltzea, jakiari ez dagozkionak edo erabiltzailea nahas dezaketanak)	601,02 euro

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetze-ko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Tuterako orburuaren adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedientei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Tuterako orburuaren adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedientei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Azken bost urteotan ez da inolako arau-hausterik izan "Tuterako Orburua" Adierazpen Geografiko Babestuan.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetze-ko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Nafarroako arkumearen adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroako arkumearen adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Azken bost urteotan ez da inolako arau-hausterik izan "Nafarroako Arkumea" Adierazpen Geografiko Babestuan.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Nafarroako aratxearen adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroako aratxearen adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Azken bost urteotan ez da inolako arau-hausterik izan "Nafarroako Aratxea" Adierazpen Geografiko Babestuan.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Nafarroako ardoaren jatorrizko deitura babestuan arau-haustereen bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedientei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroako ardoaren jatorrizko deitura babestuan arau-haustereen bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedientei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Bost urteotan ondoko arau-haustek izan dira "Nafarroako Ardoa" Jatorrizko Deituran:

ESPEDIENTE ZENBAKIA	ERREGELAMENDUKO ARTIKULUA	ZEHAPENA	ZENBATEKOA	OHARRAK
1/2003	35	Diru-zehapena	184,44 €	
2/2003	36.2	Diru-zehapena	126,45 €	
3/2003	25.2 eta 36.2	Diru-zehapena	120,20 €	
4/2003	25.2 eta 29.3	Diru-zehapena	180,10 €	
5/2003	29.3	Diru-zehapena	180,30 €	
6/2003	29.3	Diru-zehapena	16.412,83 €	
7/2003	30 eta 35	Diru-zehapena	1.184,75 €	
8/2003	29.3	Diru-zehapena	484,52 €	
9/2003	29.3	Diru-zehapena	261,38 €	
10/2003	29.3	Diru-zehapena	275,04 €	
11/2003	29.3	Diru-zehapena	231,75 €	
12/2003	29.3	Diru-zehapena	139,56 €	
13/2003	29.3	Diru-zehapena	163,49 €	
14/2003	29.3	Diru-zehapena	145,36 €	
15/2003	29.3	Diru-zehapena	226,71 €	
16/2003	16.2 eta 6.3	Diru-zehapena	123,11 €	
18/2003	36.2	Diru-zehapena	132,68 €	
19/2003	29.3	Diru-zehapena	120,20 €	
23/2003	25.3 eta 2	Diru-zehapena	120,20 €	

ESPEDIENTE ZENBAKIA	ERREGELAMEN- DUKO ARTIKULUA	ZEHAPENA	ZENBATEKOA	OHARRAK
2/2004	24.2 eta 29.3	Diru-zehapena	3.221,00 €	
3/2004	35.1.B eta 25.2	Diru-zehapena + Ohartarazpena	120,20 €	
4/2004	6.3.C	Diru-zehapena	685,10 €	
5/2004	6.3.C	Diru-zehapena	222,62 €	
6/2004	6.3.C	Diru-zehapena	1.869,83 €	

2006. urtean

ESPEDIENTE ZENBAKIA	ERREGELAMEN- DUKO ARTIKULUA	ZEHAPENA	ZENBATEKOA	OHARRAK
1/2006	35	Diru-zehapena	2.000,00 €	
4/2006	29.3	Diru-zehapena	2.001,00 €	

2007. urtean

ESPEDIENTE ZENBAKIA	ERREGELAMEN- DUKO ARTIKULUA	ZEHAPENA	ZENBATEKOA	OHARRAK
1/2007	25.2	Diru-zehapena	56,47 €	
2/2007	25.2	Diru-zehapena	400,37 €	
3/2007	29.3	Diru-zehapena	2.000,00 €	
9/2007	29.3	Diru-zehapena	2.501,00 €	

Halaber, zehapen espedienteak izapidetu zaizkie inskribatutako enpresei, produktu horrekin lotutako beste arau-hauste batzuk egiteagatik:

Aktaren data	Zehapenaren zenbatekoa	Arau-haustearen zergatia
2007	2.001 €	Kalitatea-Osaera
2007	2.001 €	Kalitatea-Osaera

Aktaren data	Zehapenaren zenbatekoa	Arau-haustearen zergatia
2006	2.001 €	Etiketak
2006	2.001 €	Kalitatea-Osaera
2006	2.001 €	Kalitatea-Osaera
2006	2.001 €	Kalitatea-Osaera
2006	2.001 €	Kalitatea-Osaera
2006	2.100 €	Kalitatea-Osaera

Aktaren data	Zehapenaren zenbatekoa	Arau-haustearen zergatia
2004	2001 €	Kalitatea-Osaera
2004	4002 €	Kalitatea-Osaera
2004	6.406,04 €	Derrigorrezko dokumentazioa

Aktaren data	Zehapenaren zenbatekoa	Arau-haustearen zergatia
2003	2.001 €	Kalitatea-Osaera
2003	392,82 €	Kalitatea-Osaera
2003	8.613,3 €	Kalitatea-Osaera

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Erronkariko gaztaren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedientei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Erronkariko gaztaren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedientei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Azken bost urteotan ez da inolako arau-hausterik izan "Erronkariko Gazta" Jatorrizko Deitura Babestuan.

Alabaina, azken bost urteotan zehapena ezarri zaie Deituran inskribatutako bi enpresari, nekazaritzako elikagaien araudian tipifikaturiko beste arau-hauste batzuk egiteagatik:

Urtea	Arau-haustearen zergatia	Zehapena
2007	1945/1983 Errege Dekretuaren 5.1. artikulua: ikuskapen lanak egiteko trabak jartzea	601 euro
2004	1945/1983 Errege Dekretuaren 4.2.5. artikulua: klandestinitateagatiko 2 arau-hauste (etiketak ez datoz bat ezarritako forma eta baldintzekin)	601,02 euro

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Lodosako pikillo piperraren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Lodosako pikillo piperraren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Azken bost urteotan ez da inolako arau-hausterik izan "Lodosako Pikillo Piperra" Jatorrizko Deitura Babestuan.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Nafarroako produkzio integratuaren kalitate ziurtagirian arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroako produkzio integratuaren kalitate ziurtagirian arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Azken bost urteotan ez da inolako arau-hausterik izan ekoizpen integratuaren ziurtagirian.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Nafarroako produkzio ekologikoaren kalitate ziurtagirian arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroako produkzio ekologikoaren kalitate ziurtagirian arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Azken bost urteotan ez da inolako arau-hausterik izan ekoizpen ekologikoaren kalitatearen ziurtagirian.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuaren fundazio publiko ez diren fundazioetatik zeinetako patronatu edo zuzendaritza organoetan duten partaidetza edo ordezkaritza Nafarroako Gobernuak izendatutako pertsonak.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuaren fundazio publiko ez diren fundazioetatik zeinetako patronatu edo zuzendaritza organoetan duten partaidetza edo ordezkaritza Nafarroako Gobernuak izendatutako pertsonak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuaren fundazio publiko ez diren fundazioetatik, zeinetako patronatuan duten partaidetza edo ordezkaritza Nafarroako Gobernuak izendatutako pertsonak. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Hona Nafarroako Gobernuaren fundazio publiko ez diren fundazioetatik, beren patronatuetan edo zuzendaritza organoetan Nafarroako Gobernuak izendatutako pertsonen partaidetza edo ordezkaritza duten fundazioen zerrenda, alfabeto-hurrenkeran:

Amado Alonso Fundazioa

CENER-CIEMAT Fundazioa

Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroa

CETENA Fundazioa

Dédalo Fundazioa

“Estanislao Aranzadi” Praktika Juridikoko Eskola Fundazioa

Florencio de Ansoleaga Fundazioa

Itoiz-Canal de Navarra Fundazioa

Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa

Julian Gayarre Fundazioa (Erronkari)

MEISAL (Mecanismos de Integración Social) Fundazioa

Miguel Indurain Fundazioa

Obanosko Misterioa Fundazioa

Jorge Oteiza Fundazio Museoa

Osasuna Fundazioa

Pablo Sarasate Fundazioa

Ikerketa genomiko eta proteomikoaren garapenerako fundazioa

Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioa

Victimas del Terrorismo Fundazioa

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer proiektu dituen uholdeen prebentziorako larrialdietarako plan bereziaren plangintzaren barruan.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak zer proiektu dituen uholdeen prebentziorako larrialdietarako plan bereziaren plangintzaren barruan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak zer proiektu dituen uholdeen prebentziorako, larrialdietarako plan bereziaren plangintzaren barruan. Hori horrela, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak jakinarazten dizu 2008ko aurrekontuan ondoko bi kontusail hauek daudela:

– 74300-6019-452100 kontusaila, “Ibaiertzak lehengoratzeta eta ekosistemak babestea” deiturikoa. Kontusail horrek 1.250.000 euro ditu, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ondoko jarduerak egin ditzan: tapoiak kendu, ibaiertzak lehengoratu, dragatze lanak, harri-lubetak eta abar; alegia, ibaien mantentze lanak dei genitzakeen horiek egin ditzan.

– 74300-7609-452100 kontusaila, “Ibaiak hobetzea eta obra hidraulikoak” deiturikoa, hiriguneeen babeserako eta horien kalteen prebentziorako jarduerak batera finantzatzeko. Horiek toki entitateek egiten dituzte.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du larrialdietako proiektuei eta uholdeak gertatzeko arriskuari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak bere eskumen alorrekoak diren galderei emandako erantzuna, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak emandako informazioaz gain:

“Otsailaren 25eko 45/2002 Foru Dekretua onetsi zenez geroztik, zein dira prebentzio-proiektuak larrialdietako plan bereziaren plangintzaren barruan edo Nafarroako Foru Komunitatean uholdeak gertatzeko arriskuaren aurrean?” dioen galderari dagokionez, lehenik eta behin ondokoa argitu behar da: Nafarroako Foru Komunitateko Uholde Arriskurako Larrialdi Plan berezia egin zen Herriarren Babesari buruzko Oinarrizko Jarraibidearekin bat, eta indarrean dagoen araudiari jarraikiz homologatu eta onetsi zen. Plan horren helburua da baliabide eta zerbitzu publikoen nahiz pribatuen antolamendua eta jarduketa prozedurak ezartzea, guztien arteko beharrezko koherentzia bermatzeko, eta edozein gertakariren aurrean jarduera azkarra, koordinatua eta eraginkorra bermatzeko.

Beraz, eta oinarrizko jarraibide horretan xedatzen denez, plan horietan ez da jaso behar prebentzio-proiektuak planifikatzeko edo betetzeko inolako aurreikuspenik. Kasua bada, alor horretan eskumenak dituen organoak garatuko ditu plan horiek.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 29an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, kudeaketa publikoko nahiz pribatuko zahar-etxeei eta bertako langileei aplikatzen zaizkien hitzarmenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du kudeaketa publikoko nahiz pribatuko zahar-etxeei eta bertako langileei aplikatzen zaizkien hitzarmenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du jakiteko zein diren kudeaketa publikoko nahiz pribatuko zahar-etxeetako langileei aplikatzen zaizkien hitzarmenak. Hona Familia, Gazte-

ria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak dituen datuak dira herritarrei zerbitzuak eskaintzeko dituen egoitzei buruzkoak. Zerbitzu horiek eskaintzen ditu bai zuzenean, egoitza horiek departamentuaren menpe daudelako, bai zeharka, kasuan kasuko administrazio kontratazioen bidez.

Hortaz, hau da egoitza horiei buruz dagoen informazioa:

A) Administrazioaren menpeko egoitzak

Bi zahar-etxe daude Foru Komunitateko administrazioaren menpe: "El Vergel" zahar-etxea, Iruñean, eta "Santo Domingo" zahar-etxea, Lizarran. Biak Nafarroako Mendekotasun Agentziaren menpe daude. Horietan dauden langileek dihardute Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuak eta hura garatzeko araudiak agintzen duenari jarraikiz.

B) Hitzarmen kolektibo zehatzak dituzten egoitzak

Zentroa	Hitzarmena	Erreferentzia
Amma Mutilva	Amma Navarra enpresa multzoaren hitzarmen kolektiboa (2006-2009)	2006ko azaroaren 29ko 143. Nafarroako Aldizkari Ofiziala
Amma Ibañeta	Amma Navarra enpresa multzoaren hitzarmen kolektiboa (2006-2009)	2006ko azaroaren 29ko 143. Nafarroako Aldizkari Ofiziala
Amma Oblatas	Amma Navarra enpresa multzoaren hitzarmen kolektiboa (2006-2009)	2006ko azaroaren 29ko 143. Nafarroako Aldizkari Ofiziala
Benito Menni	Benito Menni ospitale-zentroaren lan hitzarmen kolektiboa (2006-2008)	2007ko abenduaren 7ko 293/2007 EAO
Aita Menni	Aita Menni klinika psikiatrikoa enpresaren lan hitzarmen kolektiboa (2006-2009)	2008ko apirilaren 7ko 44. Nafarroako Aldizkari Ofiziala
Tuterako Erruki-Etxea	Tuterako Erruki-Etxearen hitzarmena (2004/2007)	2004ko urriaren 1eko 118. Nafarroako Aldizkari Ofiziala
San Adrián	Gestión Social San Adrián enpresaren lan hitzarmen kolektiboa (2007/2009)	2007ko maiatzaren 25eko 65. Nafarroako Aldizkari Ofiziala

C) Hitzarmen kolektibo sektorialak aplikatzen dituzten egoitzak, ordainsarrietan zenbait hobekunza badituzte ere

Zentroa	Hitzarmena	Erreferentzia	Iruzkina
Landazabal	Estatuko V. Hitzarmen-markoa, menpekotasuna duten pertsonen arreta emateko eta autonomia pertsonala sustatzeko soldata-hobekuntzak egiteari buruzkoa	2008ko apirilaren 1eko 79. EAO	Berme osagarria (hitzarmenetik kanpo)
Mirador	Estatuko V. Hitzarmen-markoa, menpekotasuna duten pertsonen arreta emateko eta autonomia pertsonala sustatzeko soldata-hobekuntzak egiteari buruzkoa	2008ko apirilaren 1eko 79. EAO	Soldata-hobekuntzak
San Manuel-San Severino egoitza	Estatuko V. Hitzarmen-markoa, menpekotasuna duten pertsonen arreta emateko eta autonomia pertsonala sustatzeko soldata-hobekuntzak egiteari buruzkoa	2008ko apirilaren 1eko 79. EAO	Hobekuntzarako urtez urteko hitzarmenak
Vaguada	Estatuko V. Hitzarmen-markoa, menpekotasuna duten pertsonen arreta emateko eta autonomia pertsonala sustatzeko soldata-hobekuntzak egiteari buruzkoa	2008ko apirilaren 1eko 79. EAO	Soldata-hobekuntzak
Virgen del Castillo	Ostalaritzako industriarako hitzarmen kolektiboa 2007/2009	2008ko abuztuaren 8ko 97. Nafarroako Aldizkari Ofiziala	Soldata-hobekuntza zuzendariarentzat eta edurentzat

D) Enpresa-ituna soilik duten egoitzak

Zentroa	Hitzarmena	Iruzkina
Aita Barandiaran	Enpresa-ituna 2004/2007	Hitzarmenean jasota ez dagoenarentzat ostalaritzako hitzarmena aplikatzen da
Luz de Estella	Enpresa-ituna	Ez dugu datu gehiagorik
San Francisco Asís	Soldata ituna 2005/2008	

Iruñean, 2008ko apirilaren 30ean.

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, udalerrietan adineko pertsonak dituzten beharriaren gaineko azterlanak egiteko udalei ematen zaizkien laguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du udalerrietan adineko pertsonak dituzten beharriaren gaineko azterlanak egiteko udalei ematen zaizkien laguntzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du adineko pertsonak dituzten beharriaren gaineko azterlanak egiteko udalei ematen zaizkien laguntzei buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak uste du beharriaren gaineko azterlanak Plangintza Orokorreko tresnak direla, lurralde desorekak saihestu eta jarduteko lehentasunak zehaztekoak. Plangintza Orokor hori Nafarroako Gobernuari dagokio, eta departamentu honen bidez egiten du.

Ildo horretatik, departamentua, uneotan, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa prestatzen ari da. Plan orokor horren xedea da aztertzea zein diren Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuetan esku hartzen duten sektore guztien beharriak. Sektore horien artean, nola ez, adineko pertsonak daude. Plan horren ildo estrategikoetako bat da lehenestea zein diren esku-hartze sektoreak (menpekotasuna, adineko pertsonak, minusbaliotasuna, buru-gaixotasuna, gizarte-bazterketa, adingabeak eta genero-indarkeriaren biktimak) eta pertsona horiei arreta ematen dieten zerbitzu egoiak. Horrela, agerian geratuko dira adineko pertsonen beharriak, horien bizilekua dena delakoa.

Amaitzeko, udalek Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak dituzte. Horiek herritarrengandik hurbilenean dauden zerbitzuak direnez, jakin badakite zein diren adineko pertsonak dituzten beharriak beren toki entitate zehatzetan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 4an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, A-12 autobidean animaliak sartzen direla-eta eragindako istripuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du A-12 autobidean animaliak sartzen direla-eta eragindako istripuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 18ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du Donejakue Bideko Autobian (A-12) sartutako animaliei buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

EHIZARAKO BASA FAUNAK DONEJAKUE BIDEKO AUTOBIAN (A-12) ERAGINDAKO ISTRIPUAK 2007an				
DATA	LEKUA	ISTRIPUA ERAGIN DUEN ESPEZIEA	IBILGAILUA	AITORTUTAKO ZENBATEKOA
Urtarrilaren 14an	Elizagorria	Basurdea	BU-1469-S	2.255,79 €
Otsailaren 4an	Iguzkitza	Basurdea	NA-3960-AY	400,77 €
Otsailaren 7an	Gares	Basurdea	NA-9623-AL	2.361,48 €
Otsailaren 12an	Villamayor de Monjardin	Basurdea	NA-2363-AG	1.116,67 €
Maiatzaren 23an	Uterga	Azeria	9152FFJ	1.145,55 €
Ekainaren 27an	Villatuerta	Azeria	3323BKR	1.202,46 €
Abuztuaren 2an	Deiéri	Azeria	NA-5746-AX	205,43 €
Urriaren 29an	Mañeru	Azeria	2860CVT	535,20 €
Azaroaren 1ean	Legarda	Basurdea	7805BDJ	5.360,99 €
Azaroaren 25ean	Zizur	Basurdea	NA-4048-AW	4.940,61 €
Azaroaren 27an	Iguzkitza	Basurdea	5006FDL	2.995,57 €
Izapidetzen:				
Urriaren 27an	Legarda	Azeria	4920CJF	
Azaroaren 11n	Zizur	Basurdea	NA-4189-AX	
Abenduaren 10ean	Zirauki	Basurdea	4997CPM	
Abenduaren 31n	Gares	Basurdea	0577CYK	

Argitu beharra dago daukagun informazio bakarra dela departamentuan kalte-ordainak erreklamatu dituzten istripuei buruzkoa.

Halaber, adierazi behar da Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legearen 86. artikuluan ezartzen denez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari dagokiola zehaztea noren erantzukizuna eta betebeharra izanen den ehizarako basa faunak eragindako istripuen kalteak ordaintzea.

Azkenik, ondokoa adierazi behar da: 17/2005 Foru Legearen 86. artikulua hori aplikatuta ere, ezin bada istripuaren erantzukizuna egotzi, erantzukizun hori departamentuak berak hartuko du. Horretarako, dagokion ebazpena igorriko da, non aginduko den erreklamaturako zenbatekoa ordain dadin, administrazio izapidetzea arintze aldera eta kaltetuei ahalik eta traba gutxien eragite aldera. 2007an Donejakue Bideko autobian gertatutako istripu guztietan Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak egin die aurre erreklamaturako kalte-ordain guztiei.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna

Ehizarako fauna harrapatzeagatik gertatutako istripuen ondare-erantzukizunak izapidetzen dira Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan, Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.

A-12 autobian ehizarako ez den fauna harrapatzeagatik gertatutako istripuen ondare-erantzukizunak ebazten dira Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan. Zehazki, 2007. urtean zehar, kalte-ordainen erreklamazio bakarra heldu da Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentura, 2.500,28 eurokoa. Hori A-12 autobian gertatutako istripu baten ondorioz heldu da, autobian txakur bat sartu zelako. Aipaturiko erreklamazio hori 2007ko azaroaren 27an sartu zen departamentura, eta oraindik ebazteke dago.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Osasun Departamentuko teknikariek eginiko “Gela osasungarriak, nerabe trebeak” izeneko materialaren argitalpen eta zabalkundeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Osasun Departamentuko teknikariek eginiko “Gela osasungarriak, nerabe trebeak” izeneko materialaren argitalpen eta zabalkundeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Hezkuntza kontseilariaren erantzuna

1. Hezkuntza Departamentuaren asmoa da Parlamentuko Osoko Bilkurak apirilaren 17an onetsitako Ebazpena zorrotz betetzea, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen den “Hezkuntza Departamentuak 2008-2009 ikasturterako irakasleen esku jar dezan material hori, zein euskarritan dagoen, horrexetan, euskarri informatikoa barne”

Ildo horretatik, parlamentari andreari ondokoa jakinarazi behar zaio: “Gela osasungarriak... Nerabe trebeak” izeneko lan fitxak euskarri informatikoa (PDFa, gaztelaniaz eta euskaraz) bidali zaizkie Irakasleentzako Laguntza Zentroei (ILZ), Hezkuntza Departamentuko web orrian eseki ditzaten (<http://www.pnte.cfnavarra.es/caps/>); halaber, lan fitxa horiek banatu dira Nafarroako Foru Komunitatean dagoen Europako Osasunaren aldeko Eskolen Sareak joan den apirilaren 23an, Iruñean, egin zuen topaketan (“PDF” eta “WORD” euskarri informatikoetan banatu ziren, gaztelaniaz eta euskaraz); azkenik, dokumentu horiek eskuragarri egonen dira prestakuntza fasean dagoen Balioen Hezkuntzaren orrian –hori ere Hezkuntza Departamentuaren webgunearen zati da–.

2. Osasun Departamentua eta Hezkuntza Departamentua elkarlanean aritu dira, 90eko hamarkadaren hasieraz geroztik, eskolaren esparruan osasuna sustatzeko. Haien asmoa da zeregin horretan jarraitzea, eta material hauek elkarrekin prestatu dituzte. Horien argitalpenari dagokionez, Parlamentuaren Ebazpenean jasotakoa beteko da –hori galdera hau egin ostean onartu zen, eta IUN-NEB parlamentu-taldearen aldeko botoak ere jaso zituen–.

3. Aipaturiko material horiek beste administrazio batzuentzat eskuragarri jartzeko eskaerari dagokionez –administrazio hori estatu mailakoa nahiz hala eskatzen duen beste edozein izan–, kasuz kasu aztertuko da.

Parlamentari andrea aurreko Hezkuntza Ministerioaren CIDEko (Hezkuntza Ikerketa eta Dokumentazioko Zentroa) zuzendariak eta Osasun eta Kontsumo Ministerioan dagoen Osasunaren Sustapen eta Epidemiologiaren zuzendariordeak egingako eskariei buruz ari bada, jakinarazten zaio azken horrek ondokoa adierazi zuela hitzez hitz: “... eta jakin badakigunez uneotan horiek argitaratzeko asmorik ez duzuela, horiek lagatzeko aukera hausnartzea eskatzen dizugu...”; beraz, ulertzen dugu egoerak aldatu direla, eta hala jakinaraziko zaie.

Beti ere, material hori prestatu dute Nafarroako Foru Komunitateko Europako Osasunaren aldeko Eskolen Sarean dauden profesionalak. Sare hori koordinatzen da beste autonomia erkidego batzuetan dauden Europako Osasunaren aldeko Eskolen Sareekin, Hezkuntza eta Kultura Ministerioan dagoen CIDEren bidez; eta sare horren bidez lanerako materialak partekatzen dira.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 5ean

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Osasun kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Osasun Departamentuko teknikariek eginiko “Gela osasungarriak... Nerabe trebeak” izeneko materialaren argitalpen eta zabalkundeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

2008ko apirilaren 17an Parlamentuko Osoko Bilkuran onetsi zenez, Osasun Departamentuak argitaratuko du “Gela osasungarriak... Nerabe trebeak” izeneko liburua, eta behin argitaratua, Hezkuntza Departamentuak zabalduko du.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 8an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, 2007-2008 eta 2006-2007 ikasturteetako eskaintza eta eskaerari buruzkoa, adin-tarteen eta hizkuntza ereduaren arabera xehakaturata.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du 2007-2008 eta 2006-2007 ikasturteetako eskaintza eta eskaerari buruz, adin-tarteen eta hizkuntza ereduaren arabera xehakaturata.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Hezkuntza Departamentuak prestatzen duen ebazpenaren bidez arautzen da, urtero, ikasleak onartzeko prozedura, udal titulartasuna eta Hezkuntza Departamentuaren lankidetzaren bidezko finantzabidea duten Haur Hezkuntzako ikastetxeetan.

Ildo horretatik, 48/2008 Ebazpenaren bidez arautzen da 2008/2009 ikasturterako ikasleak onartzeko prozedura –hori Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak eman zuen, otsailaren 15ean–.

Gauza bera egin zen 2006/2007 eta 2007/2008 ikasturteetan, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emandako ebazpenen bidez. Zehazki, ondoko hauek izan ziren: urtarrilaren 24ko 24/2006 Ebazpena, eta otsailaren 6ko 76/2007 Ebazpena.

Arestian aipaturiko ebazpen horietan zehazten denez, toki entitateek eramanen dituzte aurrera beren zentroetan ikasleak onartzeko prozedurak. Horretarako, hautaketa eginen duen batzorde bat izendatuko dute, ondoko zereginak izanen dituen: inprimaki ofizialak prestatu eta udalerriko zentro guztietarako deialdia ebatzi, ebazpen horietan proposatzen diren onarpen irizpideak eta baremoa aplikatuz.

Beraz, udalek kudeatzen dituzte ikasleak beren udalerrietako zentroetan onartzeko prozesuak, bai eta itxaron-zerrendak ere. Gainera, eta prozedura deszentralizatua denez, familia batzuek udal ezberdinetan aurkezten dituzte haien eskaerak; beraz, eskaria egiten dutenen kopuruak ez du zertan bat etorri behar udaletan aurkeztutako eskari-kopuruarekin.

Bestalde, Hezkuntza Departamentuak ez dauka datu egiatzaturik Haur Hezkuntzako lehen zikloa eskaintzen duten ikastetxe pribatuei buruz. Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen 28/2007 Foru Dekretuko bigarren xedapen iragankorrek 3 urteko epea ematen du, irakaskuntza hori ezartzen denetik, eskatzen diren baldintzetara egokitzeko eta baimena eskatzeko, dekretu horren IV. tituluan ezarritakoari jarraikiz.

Hezkuntza Departamentuak datuak ditu 2006/2007 eta 2007/2008 ikasturteetan ikastetxeen eta ikaspostuen eskaintzak izan duen bilakaerari buruz; izan ere, horiek dira aintzat hartzen diren datuak udalekin hitzarmenak finantzatzera-koan:

Ikasturtea	Udalak	Ikastetxeak	Unitateak	Eskaintako ikaspostuak
2006/07	56	71	370	4.349
2007/08	56	74	410	4.777

Hizkuntza ereduari dagokienez, Haur Hezkuntzako lehen zikloak bere hezkuntza edukiak banatzen ditu garapenaren eta esperientziaren esparru handietan; hortaz, zaila da aplikatzen hizkuntza ereduak arautzen dituen 159/1988 Foru Dekretuak horiei buruz zehazten duena. Udalek, beren udalerrietan dagoen eskarian eta beren irizpideetan

oinarriturik, aukeratzen dituzten hizkuntzetan eskaintzen dituzte ikastetxeak, unitateak eta programatutako jarduerak ere.

Iruñean, 2008ko apirilaren 30ean

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, “Pro Libertate” izeneko bilduman argitaratutako liburuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du “Pro Libertate” izeneko bilduman argitaratutako liburuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du "Pro libertate" izeneko bilduman argitaratutako liburuekin zerikusia duten zenbait gai buruz (PES-108 galdera). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Gaur arte, 15 liburu argitaratu dira "Pro libertate" bilduman.

Lan horien maketatze eta argitaratze lanak, kasu guztietan, eta osoki, lanak esleitzeari buruz ezarritako irizpideen arabera kudeatu ditu Argitalpen Atalak –atal hori Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Departamentuari dago atxikita–.

Honekin batera, liburu bakoitzaren fitxa doa, non ageri baita liburuaren izenburua, ale kopurua, banaketa eta salmenta, edo nork eskuratu duen (Nafarroako Gobernuak edo administrazioaren partaidetza duten edo haren dirulaguntza jasotzen duten beste entitate edo erakunde batzuek), zer kostu izan dituen –zehaztuta autoreei eta/edo zuzendariari esleitutakoa, ordaindutakoa edo ordainean emanikoa– eta liburu bakoitzak eragindako dirusarrerak eta nondik heldu diren dirusarrera horiek.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

ZENBAKIA: 1	
IZENBURUA: Instituciones básicas de Derecho Constitucional.	
URTEA:	2.003
ARGITARATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
SALGAI JARRITAKO ALE KOPURUA:	700
NAFARROAKO GOBERNUAK FINANTZATUTAKO ALE KOPURUA	1.000
ZUZENDARITZA: Nafarroako Administrazio Publikoen Modernizazio eta Azterlanetarako Zerbitzua	
AUTOREA: Francisco Javier Enériz Olaechea.	
ZUZENDARITZA ETA AUTORETZA KOSTUAK	0,00 €
MAKETATZEA:	1.726,14 €
ARGITARATZEA:	3.594,00 €
KOSTUAK, GUZTIRA:	5.320,14 €
JENDEARENTZAKO SALMENTA-PREZIOA::	9,00 €
SALMENTEK ERAGINDAKO DIRUSARRERAK:	2.211,30 €
ZENBAKIA: 2	
IZENBURUA: Manual de Derecho Público de Navarra (2. argitalpena). Agortua.	
URTEA:	2004
ARGITARATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
SALGAI JARRITAKO ALE KOPURUA:	555
NAFARROAKO GOBERNUAK FINANTZATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
ZUZENDARITZA: Nafarroako Administrazio Publikoen Modernizazio eta Azterlanetarako Zerbitzua.	
AUTOREAK: Alberto Pérez Calvo. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Konstituzio Zuzenbideko katedraduna. Martín María Razquin Lizarraga. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra.	
ZUZENDARITZA ETA AUTORETZA KOSTUAK	12.000,00 €
MAKETATZEA:	1.761,09 €
ARGITARATZEA:	4.323,49 €
KOSTUAK, GUZTIRA:	18.084,58 €
JENDEARENTZAKO SALMENTA-PREZIOA:	9,00 €
SALMENTEK ERAGINDAKO DIRUSARRERAK:	4.177,62 €

Oharra: Lehenengo argitalpena "Pro libertate" bildumatik kanpo egin zen.

ZENBAKIA: 2	
IZENBURUA: Manual de Derecho Público de Navarra (3. argitalpena).	
URTEA:	2007
ARGITARATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
SALGAI JARRITAKO ALE KOPURUA:	599
NAFARROAKO GOBERNUAK FINANTZATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
ZUZENDARITZA: Nafarroako Administrazio Publikoen Modernizazio eta Azterlanetarako Zerbitzua.	
AUTOREAK: Alberto Pérez Calvo. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Konstituzio Zuzenbideko katedraduna. Martín María Razquin Lizarraga. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazio Zuzenbideko katedraduna.	
ZUZENDARITZA ETA AUTORETZA KOSTUAK:	12.000,00 €
MAKETATZEA:	2.628,00 €
ARGITARATZEA:	7.169,00 €
KOSTUAK, GUZTIRA:	21.797,00 €
JENDEARENTZAKO SALMENTA-PREZIOA:	15,00 €
SALMENTEK ERAGINDAKO DIRUSARRERAK:	1.077,00 €

ZENBAKIA: 3	
IZENBURUA: Manual de Derecho Urbanístico de Navarra.	
URTEA:	2005
ARGITARATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
SALGAI JARRITAKO ALE KOPURUA:	700
NAFARROAKO GOBERNUAK FINANTZATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
ZUZENDARITZA: Nafarroako Administrazio Publikoen Modernizazio eta Azterlanetarako Zerbitzua	
AUTOREAK: Juan Cruz Alli Aranguren. Zuzenbidean doktorea eta hirigintza-teknikaria. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra. Juan Cruz Alli Turrillas, Zuzenbidean doktorea. Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra.	
ZUZENDARITZA ETA AUTORETZA KOSTUAK:	6.000,00 €
MAKETATZEA:	1.585,00 €
ARGITARATZEA:	* 3.686,00 €
KOSTUAK, GUZTIRA:	11.271,00 €
JENDEARENTZAKO SALMENTA-PREZIOA:	9 €
SALMENTEK ERAGINDAKO DIRUSARRERAK:	4.695,33 €

* Oharra: Diru kopuru hori Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ordaindu zuen.

ZENBAKIA: 4	
IZENBURUA: Derecho sanitario de Navarra.	
URTEA:	2005
ARGITARATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
SALGAI JARRITAKO ALE KOPURUA:	700
NAFARROAKO GOBERNUAK FINANTZATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
ZUZENDARITZA: Nafarroako Administrazio Publikoen Modernizazio eta Azterlanetarako Zerbitzua	
AUTOREA: Juan Luis Beltrán Aguirre. Zuzenbidean doktorea.	
ZUZENDARITZA ETA AUTORETZA KOSTUAK:	12.000,00 €
MAKETATZEA:	2.005,28 €
ARGITARATZEA:	3.042,72 €
KOSTUAK, GUZTIRA:	17.048,00 €
JENDEARENTZAKO SALMENTA-PREZIOA:	9,00 €
SALMENTEK ERAGINDAKO DIRUSARRERAK:	919,17 €

ZENBAKIA: 5	
IZENBURUA: Manual de Derecho Tributario de Navarra.	
URTEA:	2005
ARGITARATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
SALGAI JARRITAKO ALE KOPURUA:	700
NAFARROAKO GOBERNUAK FINANTZATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
ZUZENDARITZA: Nafarroako Administrazio Publikoen Modernizazio eta Azterlanetarako Zerbitzua	
AUTOREAK: Fernando de la Hucha Celador. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Finantza- eta Tributu-zuzenbideko katedraduna Miguel Álvarez Erviti Ignacio Amatriain Cía	
ZUZENDARITZA ETA AUTORETZA KOSTUAK:	12.000,00 €
MAKETATZEA:	2.367,28 €
ARGITARATZEA:	3.783,00 €
KOSTUAK, GUZTIRA:	18.150,28 €
JENDEARENTZAKO SALMENTA-PREZIOA:	9,00 €
SALMENTEK ERAGINDAKO DIRUSARRERAK:	1.869,93 €

ZENBAKIA: 6	
IZENBURUA: Los términos faceros de la merindad de Pamplona. Estudio histórico-jurídico.	
URTEA:	2005
ARGITARATUTAKO ALE KOPURUA:	500
SALGAI JARRITAKO ALE KOPURUA:	100
NAFARROAKO GOBERNUAK FINANTZATUTAKO ALE KOPURUA:	500
ZUZENDARITZA: Nafarroako Administrazio Publikoen Modernizazio eta Azterlanetarako Zerbitzua.	
AUTOREAK: Mercedes Galán Lorda Amparo Zubiri Jaurrieta	
ZUZENDARITZA ETA AUTORETZA KOSTUAK:	0,00 €
MAKETATZEA:	823,68 €
ARGITARATZEA:	1.769,00 €
KOSTUAK, GUZTIRA:	2592,68 €
JENDEARENTZAKO SALMENTA-PREZIOA:	9,00 €
SALMENTEK ERAGINDAKO DIRUSARRERAK:	214,02 €

ZENBAKIA: 7	
IZENBURUA: El Gobierno y la Administración de la Comunidad Foral de Navarra. Comentarios a las Leyes Forales 14 y 15/2004, de 3 de diciembre.	
URTEA:	2005
ARGITARATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
SALGAI JARRITAKO ALE KOPURUA:	690
NAFARROAKO GOBERNUAK FINANTZATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
ZUZENDARIA: José Antonio Razquin Lizarraga. Zuzenbidean doktorea. Nafarroako Gobernu Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuko zuzendaria. Nafarroako Kontseiluko kontseilari-idazkaria.	
AUTOREAK: José Francisco Alenza García. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra. Juan Cruz Alli Aranguren. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra. Nafarroako Gobernu lehendakari ohia. José Contreras López. Nafarroako Gobernuaren aholkulari juridikoa. Legegintza eta Koordinazio Zerbitzuko zuzendaria. Francisco Javier Enériz Olaechea. Zuzenbidean doktorea. Miguel Esparza Oroz. Nafarroako Parlamentuko legelaria. Ángel J. Gómez Montoro. Konstituzio-zuzenbideko katedraduna. José Gabriel Iriarte Rived. Nafarroako Gobernu Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko idazkari nagusi teknikoa. Francisco de Borja López-Jurado Escribano. Nafarroako Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko irakasle arrunta. Javier Martínez Eslava. Nafarroako Gobernu Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Kontratazio eta Aseguruen Ataleko burua. José Antonio Razquin Lizarraga. Zuzenbidean doktorea. Nafarroako Gobernu Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuko zuzendaria. Nafarroako Kontseiluko kontseilari-idazkaria. Martín María Razquin Lizarraga. Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra. Ángel Ruiz de Apodaca Espinosa. Nafarroako Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko irakasle laguntzailea. Ildfonso Sebastián Labayen. Nafarroako Gobernuaren aholkulari juridikoa. Nafarroako Gobernu Lehendakaritza zuzendari nagusia.	
ZUZENDARITZA ETA AUTORETZA KOSTUAK:	8.200,00 €
MAKETATZEA:	1.901,64 €
ARGITARATZEA:	7.500,00 €
KOSTUAK, GUZTIRA:	17.601,64 €
JENDEARENTZAKO SALMENTA-PREZIOA:	15,00 €
SALMENTEK ERAGINDAKO DIRUSARRERAK:	3.522,15 €

ZENBAKIA: 8	
IZENBURUA: Derecho de la función pública de Navarra.	
URTEA:	2005
ARGITARATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
SALGAI JARRITAKO ALE KOPURUA:	715
NAFARROAKO GOBERNUAK FINANTZATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
ZUZENDARIA: Francisco Javier Enériz Olaechea. Zuzenbidean doktorea.	
AUTOREAK: Carlos Arrieta del Valle. Nafarroako Gobernu Gizarte Prestazioen Zerbitzuko zuzendaria. Juan Luis Beltrán Aguirre. Zuzenbidean doktorea. Gabriel Casajús Gavari. Nafarroako Administrazio Auzitegiko kidea. Pablo Díez Lago. Nafarroako Parlamentuko legelari nagusia. Gregorio Eguilaz Gogorza. Administrazio publikoko teknikaria (arlotu juridikoa). Francisco Javier Enériz Olaechea Berta Enrique Cornago. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko aholkulari juridikoa. Jesús Miguel Fortún Pérez de Ciriza. Administrazio Publikoko teknikaria (arlotu juridikoa) José Miguel Gorriño Ochoa Javier Lacarra Albizu. Justiziako Zerbitzu Juridiko Administratiboko zuzendaria. Antonio Madurga Gil. Abokatua José Antonio Marañón Oricáin. Administrazio publikoko teknikaria (arlotu juridikoa). Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Giza Baliabideen eta Araubide Juridikoaren zuzendariordea. José Luis Ruiz Ciruelos. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileria eta lan harremanetako zuzendariordea. Begoña Unzué Vela Cristina Zozaya Iribarren	
ZUZENDARITZA ETA AUTORETZA KOSTUAK:	7.550,00 €
MAKETATZEA:	1.925,04 €
ARGITARATZEA:	7.930,17 €
KOSTUAK, GUZTIRA:	17.405,21 €
JENDEARENTZAKO SALMENTA-PREZIOA:	15,00 €
SALMENTEK ERAGINDAKO DIRUSARRERAK:	4.905,75 €

ZENBAKIA: 9	
IZENBURUA: Derecho local de Navarra.	
URTEA:	2005
ARGITARATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
SALGAI JARRITAKO ALE KOPURUA:	605
NAFARROAKO GOBERNUAK FINANTZATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
ZUZENDARIA: Martín María Razquin Lizarraga. Zuzenbidean doktorea. Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra. Francisco Javier Enériz Olaechea. Zuzenbidean doktorea.	
AUTOREAK: José Francisco Alenza García. Zuzenbidean doktorea. Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra. Juan Cruz Alli Aranguren. Zuzenbidean doktorea. Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra. Juan Luis Beltrán Aguirre. Zuzenbidean doktorea. Ignacio Amatriain Cía. Ogasuneko teknikaria. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Finantza- eta Tributu-zuzenbideko irakasle elkartua. Francisco Javier Enériz Olaechea. Zuzenbidean doktorea. Ignacio Iriarte Aristu. Idazkari nagusi teknikoa. Toki Administrazioiko Departamentua. José Antonio Razquin Lizarraga. Zuzenbidean doktorea. Nafarroako Gobernuko Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuko zuzendaria. Martín María Razquin Lizarraga. Zuzenbidean doktorea. Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra. Ángel Serrano Azcona. Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioiko zuzendari nagusia.	
ZUZENDARITZA ETA AUTORETZA KOSTUAK:	6.400,00 €
MAKETATZEA:	1.973,52 €
ARGITARATZEA:	7.198,12 €
KOSTUAK, GUZTIRA:	15.571,64 €
JENDEARENTZAKO SALMENTA-PREZIOA:	15,00 €
SALMENTEK ERAGINDAKO DIRUSARRERAK:	4.707,75 €

ZENBAKIA: 10	
IZENBURUA: Derecho procesal civil. I. liburukia	
URTEA:	2006
ARGITARATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
SALGAI JARRITAKO ALE KOPURUA:	680
NAFARROAKO GOBERNUAK FINANTZATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
ZUZENDARITZA: Nafarroako Administrazio Publikoen Modernizazio eta Azterlanetarako Zerbitzua	
AUTOREAK: José M ^a Rifá Soler. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide Prozesaleko katedraduna. Manuel Richard González. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide Prozesaleko irakasle titularra Iñaki Riaño Brun. Irakasle laguntzailea. Zuzenbide Prozesaleko doktorea. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.	
ZUZENDARITZA ETA AUTORETZA KOSTUAK:	4.700,00 €
MAKETATZEA:	729,04 €
ARGITARATZEA:	2.460,02 €
KOSTUAK, GUZTIRA:	7.889,06 €
JENDEARENTZAKO SALMENTA-PREZIOA:	6,00 €
SALMENTEK ERAGINDAKO DIRUSARRERAK:	2.345,40 €

ZENBAKIA: 10	
IZENBURUA: Derecho procesal civil. II. liburukia.	
URTEA:	2006
ARGITARATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
SALGAI JARRITAKO ALE KOPURUA:	655
NAFARROAKO GOBERNUAK FINANTZATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
ZUZENDARITZA: Nafarroako Administrazio Publikoen Modernizazio eta Azterlanetarako Zerbitzua	
AUTOREAK: José M ^º Rifá Soler. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide Prozesaleko katedraduna. Manuel Richard González. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide Prozesaleko irakasle titularra Iñaki Riaño Brun. Irakasle laguntzailea. Zuzenbide Prozesaleko doktorea. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.	
ZUZENDARITZA ETA AUTORETZA KOSTUAK:	4.700,00 €
MAKETATZEA:	1.502,80 €
ARGITARATZEA:	4.090,00 €
KOSTUAK, GUZTIRA:	10.292,80 €
JENDEARENTZAKO SALMENTA-PREZIOA:	8,00 €
SALMENTEK ERAGINDAKO DIRUSARRERAK:	3.194,88 €

ZENBAKIA: 11	
IZENBURUA: Comentarios a la Ley Foral de Intervención para la Protección Ambiental.	
URTEA:	2006
ARGITARATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
SALGAI JARRITAKO ALE KOPURUA:	655
NAFARROAKO GOBERNUAK FINANTZATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
ZUZENDARIA: José Francisco Alenza García. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra.	
AUTOREAK: José Francisco Alenza García. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra. Juan Cruz Alli Aranguren. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra. Félix Armendáriz Martínez. Ingurumeneko Araubide Juridikoaren Ataleko burua. Nafarroako Gobernu Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua. Juan Luis Beltrán Aguirre. Zuzenbidean doktorea. Francisco Javier Enériz Olaechea. Zuzenbidean doktorea. Jesús María Ramírez Sánchez. Hirigintza-abokatua. José Antonio Razquin Lizarraga. Zuzenbidean doktorea. Nafarroako Gobernu Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuko zuzendaria. Martín María Razquin Lizarraga. Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra. Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Ángel Ruiz de Apodaca Espinosa. Nafarroako Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko irakasle laguntzailea.	
ZUZENDARITZA ETA AUTORETZA KOSTUAK:	5.800,00 €
MAKETATZEA:	1.669,20 €
ARGITARATZEA:	6.160,00 €
KOSTUAK, GUZTIRA:	13.629,20 €
JENDEARENTZAKO SALMENTA-PREZIOA:	12,50 €
SALMENTEK ERAGINDAKO DIRUSARRERAK:	3.557,12 €

ZENBAKIA: 12	
IZENBURUA: Derecho de la Unión Europea.	
URTEA:	2006
ARGITARATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
SALGAI JARRITAKO ALE KOPURUA:	715
NAFARROAKO GOBERNUAK FINANTZATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
ZUZENDARIA: Francisco Javier Enériz Olaechea. Zuzenbidean doktorea.	
<p>AUTOREAK: Ignacio Amatriáin Cía. Ogasuneko teknikaria. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Finantza- eta Tributu-zuzenbideko irakasle elkartua.</p> <p>Juan Luis Beltrán Aguirre. Zuzenbidean doktorea.</p> <p>Fernando J. Biurrun Abad. Abokatua. Europako Zuzenbideko irakaslea Nafarroako Unibertsitateko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko praktika juridikoko eskoletan.</p> <p>Francisco Javier Enériz Olaechea. Zuzenbidean doktorea.</p> <p>Francisco Javier Fuertes López. Abokatua.</p> <p>Pilar García García. Administrazio publikoko teknikaria (arlo juridikoa).</p> <p>Blas Los Arcos León. Ekonomia Zerbitzuko zuzendaria. Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentua.</p> <p>Manuel Osuna Martín. Europako Parlamentuko funtzionario ohia eta Team Europe taldeko kidea (Europako Batzordearen hizlari taldea da talde hori).</p> <p>Alberto Pérez Calvo. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Konstituzio Zuzenbideko katedraduna.</p>	
ZUZENDARITZA ETA AUTORETZA KOSTUAK:	5.800,00 €
MAKETATZEA:	2.005,12 €
ARGITARATZEA:	6.800,00 €
KOSTUAK, GUZTIRA:	14.605,12 €
JENDEARENTZAKO SALMENTA-PREZIOA:	12,00 €
SALMENTEK ERAGINDAKO DIRUSARRERAK:	4.393,34 €

ZENBAKIA: 13	
IZENBURUA: Derecho procesal penal.	
URTEA:	2006
ARGITARATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
SALGAI JARRITAKO ALE KOPURUA:	725
NAFARROAKO GOBERNUAK FINANTZATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
ZUZENDARIA: Nafarroako Administrazio Publikoen Modernizazio eta Azterlanetarako Zerbitzua	
<p>AUTOREAK: José M^a Rifá Soler. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide Prozesaleko katedraduna.</p> <p>Manuel Richard González. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide Prozesaleko irakasle titularra</p> <p>Iñaki Riaño Brun. Irakasle laguntzailea. Zuzenbide Prozesaleko doktorea. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.</p>	
ZUZENDARITZA ETA AUTORETZA KOSTUAK:	2.600,00 €
MAKETATZEA:	2.418,60 €
ARGITARATZEA:	4.674,00 €
KOSTUAK, GUZTIRA:	9.692,60 €
JENDEARENTZAKO SALMENTA-PREZIOA:	11,00 €
SALMENTEK ERAGINDAKO DIRUSARRERAK:	3.261,06 €

ZENBAKIA: 14	
IZENBURUA: Manual de Derecho Financiero de Navarra.	
URTEA:	2006
ARGITARATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
SALGAI JARRITAKO ALE KOPURUA:	704
NAFARROAKO GOBERNUAK FINANTZATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
ZUZENDARIA: Nafarroako Administrazio Publikoen Modernizazio eta Azterlanetarako Zerbitzua	
AUTOREAK: Fernando de la Hucha Celador Ignacio Amatriain Cía Miguel Álvarez Erviti	
ZUZENDARITZA ETA AUTORETZA KOSTUAK:	12.000,00 €
MAKETATZEA:	1.984,76 €
ARGITARATZEA:	3.904,00 €
KOSTUAK, GUZTIRA:	17.888,76 €
JENDEARENTZAKO SALMENTA-PREZIOA:	9,00 €
SALMENTEK ERAGINDAKO DIRUSARRERAK:	2.056,32 €

ZENBAKIA: 15	
IZENBURUA: Comentarios a la Ley Foral de Contratos Públicos (Ley Foral 6/2006, de 9 de junio).	
URTEA:	2007
ARGITARATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
SALGAI JARRITAKO ALE KOPURUA:	723
NAFARROAKO GOBERNUAK FINANTZATUTAKO ALE KOPURUA:	1.000
ZUZENDARIA: Juan Cruz Allí Aranguren. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra.	
AUTOREAK: José Francisco Alenza García. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra. Juan Cruz Allí Aranguren. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra. Juan Luis Beltrán Aguirre. Zuzenbidean doktorea. Ignacio Carrillo de Albornoz Alfaro. Legelaria. Francisco Javier Enériz Olaechea José María Gimeno Feliú. Zuzenbidean doktorea. Zaragozako Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra. Ignacio Iriarte Aristu. Idazkari nagusi teknikoa. Toki Administrazioko Departamentua. Javier Martínez Eslava. Nafarroako Gobernuo Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Kontratazio eta Aseguruen Ataleko burua. José Antonio Razquin Lizarraga. Zuzenbidean doktorea. Nafarroako Gobernuo Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuko zuzendaria. Martín María Razquin Lizarraga. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra. José Norberto Viguria Alegría. Zuzenbideko Lizentziatua Administrazio publikoko teknikaria (arlo juridikoa).	
ZUZENDARITZA ETA AUTORETZA KOSTUAK:	8.750,00 €
MAKETATZEA:	3.128,52 €
ARGITARATZEA:	8.115,00 €
KOSTUAK, GUZTIRA:	19.993,52 €
JENDEARENTZAKO SALMENTA-PREZIOA:	18,00 €
SALMENTEK ERAGINDAKO DIRUSARRERAK:	5.082,60 €

Galdera, Spanair enpresak Iruña-Madril hegaldiak eteteko arrazoi objektiboei eta erabaki horren aurrean hartuko diren neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José M^a Vázquez Royo jaunak galdera egin du Spanair enpresak Iruña-Madril hegaldiak eteteko arrazoi objektiboei eta erabaki horren aurrean hartuko diren neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 18ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du Spanair enpresak Iruña-Madril hegaldiak eteteko arrazoi buruz. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Konpainiak ondoko arrazoia argudiatzen du ibilbide hori eteteko: jarduera-aldian metatutako defizita dela-eta –batez besteko okupazio maila %37koa izatearen ondorioz– ibilbide horrekin jarraitzea bideraezina da.

Hartu beharreko neurriei dagokienez, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak

erabaki horren berri izan zuenean, konpainiari eskatu zion bere erabakia berriro hausnar zezan; baina Spanair-ek adierazi zuen, lortutako emaitzengatik atsekabetuta, erabaki hori ezin zela atzera bota; izan ere, dirusarrerei eta errentagarritasunari dagokienez aurreikusitako helburuak lortu beharrean, jarduera-aldian defizit garrantzitsua metatu zen, eta horrek galarazten zuen ibilbidea denbora gehiagoz mantentzea.

Departamentuak, berehala, egoera horren berri eman zien Nafarroako komunikabideei, erabiltzaileek lehenbailehen ezagut zezaten eta, ahal zen neurrian, hegaldien etete horrek eragin ahal zizkien kalteak txikiagoak izan zitezen.

Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak –egun Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuari atxikia– eta Spanair enpresak sinatu zuten kontratua da xedetzat Nafarroari bultzada ematea duen lankidetzat kontratu bat. Departamentu horrek jakinarazi zion konpainiari kontratua bukatu zela, eta uneotan horren likidazioa eta behin betiko suntsiarazpena izapidetzen ari dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 7an.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, jakiteko zein egoeratan dauden Burlata, Corella, Lizarra eta Iruñeko udalekin Nafarroako Gobernua egiten ari den negoziazioak, Nafarroako Gobernuaren menpeko 0tik 3 urtera bitarteko haurrentzako eskolen kudeaketa tokian tokiko udalari lagatzekoak.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko zein egoeratan dauden Burlata, Corella, Lizarra eta Iruñeko udalekin Nafarroako Gobernua egiten ari den negoziazioak, Nafarroako Gobernuaren menpeko 0tik 3 urtera bitarteko haurrentzako eskolen kudeaketa tokian tokiko udalari lagatzekoak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

2007ko azaroan, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuaren ekimenez, eta Hezkuntza Departamentuarekin batera, lehenbiziko departamentu horren menpe zeuden Haur Eskolen egoera aztertzeari ekin zitzaion. Zortzi ikastetxe dira, guztira: horietariko bost Iruñean daude, eta gainerako hirurak Burlatan, Lizarran eta Corellan. Bi departamentuen asmoa zen proposamen bateratu bat egitea herri horietako udalei.

Hezkuntza kontseilaria bat zetorren udalei proposamen bat egiteko behararekin.

Erabaki zen lehen bilera Iruñeko alkatearekin eta bere gobernu taldeko kideekin egiten zela, 2007ko azaroaren 13an, Iruñeko Udalean. Bilera hartan Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak Iruñeko bost ikastetxeei buruzko informazioa aurkeztu zuen, eta bi kontseilariok gure proposamena eman genion alkateari, azter zezan. Erabaki zen alkateak eta bere gobernu taldeak xehetasunez aztertuko zutela proposamena, nahiz eta adierazi zuten oso gai korapilatsua izanen zela. Oraindik ez dute erantzunik eman.

Azaroaren 21ean halako bigarren bilera bat egin zen Corella, Burlata eta Lizarrako alkateekin. Bilera Hezkuntza Departamentuan egin zen, eta bertara joan ziren aurretik aipaturiko kontseilariak

eta beren zuzendari nagusiak eta Hezkuntza Departamentuko langileak.

Behin informazioa azalduta eta proposamena eginda, erabaki zen alkateek aztertuko zutela eta 2008ko urtarrilean hitz eginen genuela berriro.

Otsailaren 21ean hirugarren bilera egin zen –bigarrena Burlata, Lizarra eta Corellako alkateekin– jakiteko zein erantzun emanen zioten lehen bilera hartan, 2007ko abenduaren 21ean, egin zitzaien proposamenari; alegia, Gizarte Gaietako Departamentuaren menpe zeuden Haur Hezkuntzako Eskolen titulartasuna beren udalerrien esku uztekoari.

Bilerara ondokoak joan ziren: Hezkuntza Kontseilaria, Carlos Pérez Nievas jauna; Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuko zuzendaria; Familiaren, Haurraren eta Kontsumoaren zuzendari nagusia –Gizarte Gaietako kontseilaria eta Haur Eskolak ordezkatu zituen– eta Burlata, Corella eta Lizarrako alkateak.

Hiru alkateek bileraren hasieratik adierazi zuten proposamena egin zitzaien moduan onartzeak zailtasunak eta arazoak sor litzakeela udalerrietan.

Corellako alkateak txosten oso bat ekarri zuen proposamenaren aurkako jarrera oinarritzeko.

Lizarrako alkatea bat zetorren Corellako alkateak adierazitakoarekin, eta gehitu zuen bere udalerrian pentsaezina dela alor horretako auzi gehiagori aurre egitea; izan ere, udalerririk baditu Udal Eskola bat eta beste bat Gobernuarena.

Burlatako alkateak aurrekoen antzeko iritzia eman zuen.

Kontseilariak eta bere zerbitzuburuak 1988. urteko Foru Dekretua gogora ekarri zuten aurrekari gisa. Dekretu horren bidez, haurtzaindegi jakin bat transferitu zitzaion Barañaingo Udalari. Hala ere, adierazi zuten autonomia erkidegoetan Haur Hezkuntzako Eskolak udal titulartasunekoak direla.

Azterketa eta eztabaida “txukun” baten ostean, kontseilariak berak onartu zuen alkateek proposamenaren aurkako jarrera finkoa zutela eta ezin zela ezer inposatu. Horrek ez du esan nahi beste

alternatiba batzuetan pentsatzen jarraitu behar ez dugunik. Kontseilariak eskatu zien hausnar zezaten nola izan zitekeen auzi hori haientzat erakargarria, eta ordezeko proposamen bat egin zezaten.

Bien bitartean, guk beste eskaintza batean pentsatzen jarraituko dugu, eta tarteko formula bat erabiliko dugu. Egoerari aurre egiteko konpromisoa hartu zen; horretarako, lehenik Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariarekin bilduko ginen, eta, jarraian, bi kontseilariok Gobernuko bi lehendakariordeen babes bilatuko genuen: Lehendakaritza kontseilariarena, Gobernuko langile funtzionarioak udal administrazioan sartzeari buruzko gaiak joratzeko, eta Ekonomia eta Ogasunekoarena, beharrezkoa den babes ekonomikoa lortzeko.

Erabaki zen informazioa prestatuko zela Haur Hezkuntzako Eskola guztietako langileei buruz: eskakizunak, adinak, kategoriak, antzintasuna eta lan-absentismoa.

Kontseilariak bermatu zuen ez zirela ezertan ere murriztuko prozesu horren eraginpean zeuden pertsonen eskubideak.

Hori horrela, bilera amaitu zen beste bilera baterako egunik jarri gabe; baina harremanetan jarraitzeko konpromisoa hartu zen, egiten diren aurrerapenak elkarri jakinarazte aldera.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 14an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutzako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	